# Xedapen Orokorrak

**INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

**1364**

AGINDUA, 2009ko otsailaren 23koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; horren bitartez, industria Eteen finantza-egitura egokitzeko laguntzei buruzko Adefin programa arautzen da.

2003an, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak Industria Eteen finantza-egitura egokitzeko laguntzei buruzko Adefin programa garatzeko araua eman zuen.

Gaur egun, laguntza hori zuzenduta dagoen sektorearen egoeraren berezigarria finantza-ahultasuna da oraindik ere; ahultasun horrek baliabide iraunkorren maila baxua du, eta horrek, era berean, merkatuen hegazkortasunak edo teknologiaren aurrerapenek eragindako aldaketei erantzuteko sektore horrek duen gaitasuna mugatzen du. Horretaz gain, gaur egun ere onartzen denez, Industria Eteen sektorearen (gure industria-sarearen zati handi bat osatzen du sektore horrek) ahultasun horretan eragina duten faktoreetako bat honako hau da: enpresa-proiektuetan arriskuak hartzeko joera txikia duen finantza-merkatu bat dagoela, hain zuzen ere.

Hazkunde-igurikimenen narriadurak, finantza-merkatuetan nagusi den mesfidantzarekin batera, Eteen finantza-egoera hori gero eta ahulagoa izatea eragin du.

Hori dela-eta, adierazitako laguntza-programa horri eustea beharrezkoa dela ondorioztatu da, eragin positiboa sor baitezake, baina beste arau bat emateko premia ere nabarmena da, hain murriztailea izango ez den baina finantza-egokitzapeneko plan gehiagori heltzea ahalbidetuko duen arau bat, hain zuzen ere.

Enpresen finantza-osasuna balioztatzeko erreferentziazko elementutzat Maniobrako Funts positiboaren erabilgarritasun edo erabilgarritasun ezari eusten jarraitzen zaio, horretarako onartutako aldagai gisa. Halere, guztizko pasiboaren % 20ra bitarteko Maniobrako Funts positiboa edukitzeak ez du mugatzen laguntzaildo honi heltzeko aukera, Eteen baliabide iraunkorren hobekuntza (Adefin Programaren xede nagusia) lortzearren.

Interes-tasetako hobari gisa ematen jarraituko dira laguntzak, orokorrean, interes-tasaren puntu 1, eta batera likidatuko dira, mailegu-eragiketaren kapital biziaren murriztapen gisa, finantzarioki kalkulatutako diru-laguntzaren zenbatekoaren arabera.

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO**

**1364**

ORDEN de 23 de febrero de 2009, de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Adefin, de ayudas para la adecuación de la estructura financiera de las Pymes industriales.

El año 2003 el Consejero de Industria, Comercio y Turismo dictó una norma que desarrollaba el programa Adefin, de ayudas para la adecuación de la estructura financiera de las Pymes industriales.

En la actualidad, la situación del sector al cual va dirigida la ayuda sigue caracterizándose por su debilidad financiera, con bajos niveles de recursos permanentes, que limita su capacidad de respuesta a los cambios originados por la volatilidad de los mercados o por avances tecnológicos. Además se sigue reconociendo que uno de los factores que inciden en esta debilidad del sector de la Pyme industrial, que conforma una gran parte de nuestro tejido industrial, es la existencia de un mercado financiero poco proclive a asumir riesgos en los proyectos empresariales.

El deterioro de las expectativas de crecimiento, así como la desconfianza reinante en los mercados financieros está acrecentando más si cabe esta débil situación financiera de las Pymes.

Por ello se concluye la necesidad de mantener el citado programa de ayudas, dado el efecto positivo que puede generar, pero se hace evidente la necesidad de dictar una nueva norma menos restrictiva que permita el acceso de un mayor número de planes de adecuación financiera.

Se sigue manteniendo como elemento de referencia al evaluar la salud financiera de las empresas la disponibilidad o no de un Fondo de Maniobra positivo, como variable comúnmente aceptada a estos efectos. Ahora bien, la existencia de un Fondo de Maniobra positivo de hasta un 20% del pasivo total no limita el acceso a esta línea de ayuda, en aras a lograr una mejora de los recursos permanentes de las Pymes, principal objetivo del Programa Adefin.

Las ayudas se seguirán concediendo como bonificación en los tipos de interés, 1 punto del tipo de interés con carácter general, y se liquidarán de una vez, como reducción del capital vivo de la operación de préstamo, en la cuantía del importe de la subvención calculada financieramente.

Puntu 1eko hobari gehigarriari eutsiko zaio enpresa txikiek sinatutako eragiketetan, eta baita 0,5 puntuko interesari ere, Elkarren Bermerako Sozietateek abalatutako eragiketen kasuan. Halere, Euskal Autonomia Erkidegoak erakutsitako dinamismo ekonomiko eta soziala kontuan hartuz, 2 puntuko hobaria kenduko da Premiazko Jarduna eskatzen duten Zona Behartsuetan kokatutako berfinantzaketa-proiektuetan.

Maileguen bolumenari dagokionez, maileguen balioaren urteko gehienezko zenbatekoaren muga ere desagertuko da, eta beraz, finantza-egoeraren araberako berfinantzaketa-eragiketak gauzatu ahal izango dituzte enpresek; bestalde, diru-laguntza kalkulatzeko, besteren banku-baliabideak sartuko dira, betiere baliabide horien epemugak eskabidea egin eta urtebetera eta deialdi-ekitaldiaren hurrengo bi urteetan gertatzen badira.

Eutsiko zaion muga bakarra Europar Batasunak ezarritako minimis arauaren betearazpena izango da; horren arabera, onuradun bakar bati emandako laguntzaren guztizko zenbatekoak ezin izango du 200.000 eurotik gorakoa izan 3 urteko denbora-tartearen barruan, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 EE Erregelamenduak adierazten duen bezala.

Agindu honen xedea Finantza Erakundeen eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren arteko lankidetzaren oinarri izaten jarraitzea da, arlo horretan baterako laguntza koordinatua emateko, industria-sare sendo, saneatu eta lehiakorra lortzen lagunduko duen baterako laguntza, hain zuzen ere.

Horretarako, egokitzat jo da agindu honetan sartutako eragiketei lehentasuna ematea, horrelako eragiketei datxekien arriskua konpentsatu ahal izateko.

Horri jarraiki, honako hau

EBATZI DUT:

***1. artikulua.*** – Xedea.

Agindu honek Euskadiko Industria ETEen finantza-egitura egokitzeko laguntzei buruzko Adefin programa arautzea du xede; horretarako, epe motzeko eta ertaineko besteren baliabideak epe luzerako besteren baliabide bihurtuko dira, agindu honetan eta agindu honen xedapenetan aurreikusitako baldintzei jarraiki.

***2. artikulua.*** – Baliabide ekonomikoak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan propio ezarritako aurrekontu-kredituetatik aterako dira aurreko artikuluaren helburua betetzera bideratutako baliabide ekonomikoak; horretaz gain, Eskualde Garapenerako Europako Funtsak laguntzen du horien finantzaketan. Aurrekontuko ekitaldi bakoitzean, laguntzen bolumen osoak ezin izango du gain-

Se mantiene la bonificación adicional de 1 punto de aquellas operaciones suscritas por pequeñas empresas, así como de 0,5 puntos de interés para aquellas operaciones avaladas por una Sociedad de Garantía Reciproca. Se elimina, por el contrario, a tenor del dinamismo económico y social mostrado por la Comunidad Autónoma del País Vasco en su conjunto, la bonificación de 2 puntos en favor de los proyectos de refinanciación ubicados en Zonas Desfavorecidas de Actuación Urgente.

En cuanto a los volúmenes de préstamos desaparece el límite de importe máximo anual del valor de los préstamos, por lo que las empresas podrán materializar operaciones de refinanciación acordes a su situación financiera, incluyéndose en el cálculo de la subvención los recursos ajenos bancarios cuyos vencimientos se produzcan el año de solicitud y los dos años siguientes al del ejercicio de convocatoria.

El único límite que se mantiene es el cumplimiento de la regla de mínimis establecido por la Unión Europea, por la cual el importe total de la ayuda concedida a un mismo beneficiario no podrá ser superior a un importe de 200.000 euros, durante un periodo de 3 años, tal y como señala el Reglamento CE n.º 1998/2006 de la Comisión de 15 de diciembre de 2006.

Esta Orden pretende seguir siendo base de la colaboración entre las Entidades Financieras y el Departamento de Industria, Comercio y Turismo para un apoyo conjunto y coordinado en esta materia, que contribuya a la existencia un tejido industrial sólido, saneado y competitivo.

Para ello, se ha considerado conveniente primar las operaciones encuadradas en la presente Orden de tal manera que se pueda compensar sobre el riesgo inherente a este tipo de operaciones.

En su virtud,

DISPONGO:

***Artículo 1***.– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto regular el Programa Adefin, de ayudas a las PYMES industriales vascas para la adecuación de su estructura financiera, a través de una conversión de recursos ajenos a corto y medio plazo en recursos ajenos a largo plazo, en los términos previstos en la misma y en sus disposiciones de desarrollo.

***Artículo 2***.– Recursos Económicos.

1.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del artículo anterior procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a cuya financiación contribuye el Fondo Europeo de Desarrollo Regional. El volumen total de las ayudas a conceder dentro del ejercicio presupuesta-

ditu aurrekontuetan esleituta dagoena, ezta indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira horren eguneratzearen ondorioz sortuko den bolumena ere. Jendaurrean aurreko guztiaren berri emateko, Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuordeak ebazpena emango du.

2.– Laguntzak ukatzeko administrazio-ebazpena emango da, baldin eta adierazitako laguntzak esleitu behar dituen aurrekontuak lortu nahi den helburua lortzeko nahikoa kreditu egokirik ez badu. Horregatik, programa hau indarrean dagoen bitartean, ekitaldi ekonomikoren batean laguntzak emateko esleitutako kreditua agortzen bada, Teknologiako eta Industria Garapeneko Sailburuordetzak administrazio-ebazpena emango du horren berri jendaurrean emateko, kreditu hori zein egunetan agortu den adierazita. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Aurrekontu-kreditürik eza dela-eta, aurreko ekitaldi ekonomikoan aurkeztutako proiektuek (finantza-egiturak egokitzekoak) laguntzarik jaso ez badute, eta aurreikusitako moduaren arabera laguntzak ukatu bazaizkie, hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituetan adierazi ahal izango dira, baldin eta adierazitako proiektuek agindu honetan laguntzak lortzeko ezarritako betekizunak betetzen badituzte. Kasu horretan, beste eskabide bat aurkeztu beharko dute, baina ukatutako lehen eskabidearen eguna gordeko da lehentasunak ezartzeko.

3.– Laguntzak ordenari jarraiki emango dira, betiere espedientea noiz osatzen den kontuan hartuta.

***3. artikulua.***– Laguntzen modalitatea.

Agindu honen eta finantza-erakundeekin xede berbererako sinatutako hitzarmenen babespean formalizatzen diren mailegu-eragiketen finantza-kostua murriztuz gauzatuko dira agindu honetan barne hartutako laguntzak.

***4. artikulua.***– Erakunde onuradunak.

Agindu honetan aurreikusitako laguntza ekonomikoak lortu ahal izateko, eskatzaileek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan eduki beharko dute, eta gutxienez, produkzio-zentro bat.

b) Esparru horiei lotutako erauzketarako eta/edo eraldaketarako, produkziozko edo zerbitzu teknikoetarako industria-enpresak izan beharko dute (halakotzat joko dira produktuari edo/eta produkzio-prozesuari zuzenean lotuta daudenak), edo bestela, komunikazioaren eta informazioaren gizartearen arloko enpresak.

Aurreko paragrafoan barne hartutako enpresek, horretaz gain, jendeari zuzendutako merkataritza-jardueraren bat gauzatzen badute, jarduera horrek minoritarioa

rio no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. De esta circunstancia se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial.

2.– Mediante resolución administrativa se procederá a denegar las ayudas en el caso en que el presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente programa si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, por el Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

Los proyectos de adecuación de las estructuras financiera presentados en el ejercicio económico precedente, que no hayan obtenido ayudas por falta de crédito presupuestario y que hayan sido denegados en la forma anteriormente prevista, se podrán imputar a los créditos presupuestarios del ejercicio siguiente, siempre que los citados proyectos cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de las ayudas, para lo cual deberán presentar una nueva solicitud, si bien, a los efectos de prioridad se conservará la fecha de la primera solicitud denegada.

3.– La concesión de las ayudas se irá realizando ordenadamente en función del momento en que el expediente esté completo.

***Artículo 3.***– Modalidad de las ayudas.

Las ayudas contempladas en la presente Orden se materializarán a través de la reducción del coste financiero de las operaciones de préstamo que se formalicen al amparo de esta norma y de los Convenios que a tal efecto se suscriban con las Entidades Financieras.

***Artículo 4.***– Entidades beneficiarias.

Para poder acceder a las ayudas económicas previstas en la presente Orden los solicitantes deberán reunir los siguientes requisitos:

a) Deberán tener su domicilio fiscal en la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como, al menos, un centro de producción.

b) Deberán ser empresas industriales, extractivas y/o transformadoras, productivas, de servicios técnicos conexos a los ámbitos anteriores (entendiendo como tales, aquellos que están directamente relacionados con el producto y/o el proceso productivo) o bien empresas del ámbito de la sociedad de la información y de las comunicaciones.

En el supuesto de que una empresa de las comprendidas en el párrafo anterior ejerza, además, una actividad comercial directa al público, ésta deberá ser mino-

izan beharko du, nolanahi ere, negozio-bolumenaren % 50 baino txikiagoa.

c) Enpresa txiki edo ertainak izan beharko dute, mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan (2003-05-20ko EBAO, L 124/36) edota hori ordeztu edo aldatuko duten xedapenetan ezarritako irizpideei jarraiki.

Beraz, honako hauek hartuko dira enpresa txiki edo ertaintzat:

– 250 langile baino gutxiago dituztenak.

– 50 milioi eurotik gorako urteko negozio-bolumena ez dutenak, edo 43 milioi eurotik gorako urteko balantze orokorra ez dutenak.

– Zuzenean edo zeharka beste enpresa baten edo batera beste enpresa batzuen % 25etik gorako partaidetza ez dutenak, aurretik adierazitako betekizunen bat bete gabe.

Enpresa txikiak eta enpresa ertainak bereizi behar diren kasuetan, enpresa txikitzat joko dira 50 enplegatu baino gutxiagokoak, eta urteko negozio-bolumenean edota urteko balantze orokorrean 10 milioi euroko kopurua gainditzen ez dutenak.

Datu horien kalkulua enpresaren kontuen eta bestelako datuen oinarriaren gainean egingo da, eta partaidetutako enpresen kasuan, kontu bateratuen oinarriaren gainean.

Aurrez adierazitakoaren beste edozein interpretaziorako, mikroenpresen, enpresa txikien eta enpresa ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan (2003-05-20ko EBAO, L124/36) edo hori ordezkatu edo aldatuko duten xedapenetan ezarritakoa hartuko da kontuan.

***5. artikulua.***– Baztertutako erakundeak.

Honako hauek ez dira laguntzen onuradun izango:

a) Enpresa handiak, hots, agindu honen 4. artikuluko c) puntuari jarraiki Enpresa Txiki edo Ertaintzat har ez daitezkeenak.

b) Erakunde edo Sozietate publikoak, eta horretaz gain, Ikerketa Teknologikorako Erakundeak.

c) Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, Garraio eta Herri Lan Sailaren, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren, edo Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzaren eskumen-eremuei dagokien jarduera duten enpresak.

***6. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak.

Finantza-egitura egokitzeko proiektuek diru-laguntza jaso ahal izateko, guztizko pasiboaren % 20tik beherakoa izan beharko du proiektu horien Maniobrako Funtsak, edo bestela, ehuneko horretatik gorakoa bada, kapital zirkulatzailearen premiak justifikatu beharko du.

ritaria, en todo caso inferior al 50% de su volumen de negocios.

c) Tener la consideración de pequeña y mediana empresa conforme a los criterios establecidos en la Recomendación de la Comisión Europea de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresa, pequeñas y medianas empresas (DOUE L124/36 de 20-05-2003) o las disposiciones que a sustituyan o modifiquen.

En consecuencia, se entenderá por pequeñas y medianas empresas aquellas:

– Que empleen a menos de 250 personas.

– Que su volumen de negocio anual no supere los 50 millones de euros, o cuyo balance general anual no exceda de 43 millones de euros.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en más de un 25% por otra empresa o conjuntamente por varias empresas que no reúnan alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

Cuando sea necesario distinguir entre empresas pequeñas y medianas, se entenderá por pequeña empresa la que ocupa a menos de 50 personas y cuyo volumen de negocios anual o cuyo balance general anual no supere los 10 millones de euros.

El cálculo de dichos datos se efectuará sobre la base de las cuentas y demás datos de la empresa, o, en el caso de empresas participadas, sobre la base de las cuentas consolidadas.

Para cualquier otra interpretación de lo señalado anteriormente, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación de la Comisión, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas (DOUE, L 124/36 de 20-05-2003), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

***Artículo 5.***– Entidades excluidas.

Quedan excluidas como beneficiarias:

a) Las Grandes empresas, entendiéndose por tales, las que no tengan la consideración de Pequeñas o Medianas empresas de acuerdo con el artículo 4 punto c) de la presente Orden.

b) Los Entes y Sociedades Públicas y, además, las Entidades de Investigación Tecnológica.

c) Las empresas cuya actividad corresponda a los ámbitos competenciales de los Departamentos de Educación, Universidades e Investigación, Transportes y Obras Públicas, Agricultura, Pesca y Alimentación, y Viceconsejerías de Comercio y de Turismo del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

***Artículo 6.***– Proyectos subvencionables.

Los proyectos de adecuación de estructura financiera serán calificados como subvencionables cuando su Fondo de Maniobra sea inferior al 20% de su pasivo total o cuando, siendo superior, se justifique por las necesidades de capital circulante.

Adierazitako Maniobrako Funtsaren kalkulua eskabidearen urtearen aurreko ekitaldiko kontabilitate-itxieraren datuen arabera gauzatuko da.

Edonola ere, laguntza hauen onuradunak diren enpresek ezin izango dute programa honen barruko beste ezein diru-laguntzaren onuradun izan bi ekitaldi igaro arte.

***7. artikulua***.– Berfinantza daitekeen pasiboa.

1.– Laguntzak kalkulatzeko, eskabidearen urteari dagokion ekitaldian zehar eta horren hurrengo bi ekitaldietan sortutako besteren banku-baliabideak zenbatu ahal izango dira.

Azaroaren 16ko 1515/2007 Errege Dekretuan (2007-11-21eko BOE, 279. zenbakia) jasotako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Nagusian ezarritakoaren arabera, honako kategoria hauek hartuko dira besteren banku-baliabidetzat:

170. epigrafea.– Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

Kreditu-erakundeekin egindakoak, jasotako maileguengatik eta bestelako zorrengatik, betiere urtebetetik gorako epemuga badute.

520. epigrafea.– Epe motzeko zorrak kreditu-erakundeekin.

Kreditu-erakundeekin egindakoak, jasotako maileguengatik eta bestelako zorrengatik, betiere urtebetetik gorakoa ez den epemuga badute.

2.– Finantza-errentamenduko eragiketetatik eratorritako epemugak ez dira berfinantza daitezkeen pasibotzat hartuko.

3.– Merkataritzako efektuak eta kreditu-kontuak deskontatzeko eragiketen kasuan, amortizatzeke dagoen zenbatekotzat hartuko da eskabidearen dataren aurreko 12 hilabeteetako batez besteko saldoa. Maileguen kasuan, eskabidearen urtean zehar eta eskabidearen hurrengo 2 urte naturaletan hori amortizatzeko erabilitako zenbatekoen batura.

***8. artikulua***.– Finantza-eragiketak.

1.– Finantza Erakundeen eta Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailak eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak sinatutako lankidetza-hitzarmenaren eta agindu honen babespean Finantza Erakundeek formalizatu beharreko mailegu-eragiketei buruzkoak dira jasotako laguntzak.

2.– Agindu honetan jasotako finantza-eragiketak eurotan edo beste edozein dibisatan formalizatu ahal izango dira, betiere dibisa horiek hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzekin bat badatoz.

El cálculo del referido Fondo de Maniobra se realizará en base a los datos del cierre contable del ejercicio anterior al año de la solicitud.

En cualquier caso, una empresa que haya sido beneficiaria de estas ayudas no podrá ser beneficiaria de otra subvención dentro de este programa hasta pasados dos ejercicios.

***Artículo 7***.– Pasivo refinanciable.

1.– Serán computables a efectos del cálculo de las ayudas los recursos ajenos bancarios cuyos vencimientos se devenguen durante el ejercicio correspondiente al año de solicitud y los dos ejercicios siguientes.

Se entenderá por recursos ajenos bancarios, en función de lo establecido en el Plan General de Contabilidad de Pequeñas y Medianas Empresas, recogido en el Real Decreto 1515/2007, de 16 de noviembre (BOE n.º 279 de 21-11-2007), las siguientes categorías:

Epígrafe 170.– Deudas a largo plazo con entidades de credito.

Las contraídas con entidades de crédito por préstamos recibidos y otros débitos, con vencimiento superior a un año.

Epígrafe 520.– Deudas a corto plazo con entidades de crédito.

Las contraídas con entidades de crédito por préstamos recibidos y otros débitos, con vencimiento no superior a un año.

2.– Quedarán excluidas los vencimientos derivados de las operaciones de arrendamiento financiero.

3.– En las operaciones de descuento de efectos comerciales y cuentas de créditos se entenderá como importe pendiente de amortización el saldo medio de los 12 meses anteriores a la fecha de la solicitud. En los préstamos, la suma de las cantidades dedicadas a amortizarlo durante el año de solicitud y los 2 años naturales siguientes al de la solicitud.

***Artículo 8***.– Operaciones financieras.

1.– Las ayudas contempladas se refieren a las operaciones de préstamo a formalizar con las Entidades Financieras al amparo de la presente Orden y del Convenio de Colaboración que se suscriba entre las mismas y los Departamentos de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco.

2.– Las operaciones financieras contempladas en esta Orden podrán ser formalizadas en euros o en cualquier divisa, siempre que éstas se ajusten a las condiciones que se fijan en los siguientes artículos.

***9. artikulua.***– Diru-laguntza jaso dezaketen maileguak.

Maileguen ezaugarriak:

a) Diruz laguntzeko maileguaren gutxieneko zenbatekoa 30.000 euro da.

b) Epea: gutxienez, 5 urte, hasierako gabealdia barnean hartuta. Eguneratutako diru-laguntza kalkulatzeko, erabiltzeko gehienezko epea 7 urtekoa izango da.

c) Epemugak: gutxienez hilerokoak.

d) Formalizatzeko data: eskabidea egiten den urtearen barruan.

Gainerako baldintzetarako, agindu honen 8. artikuluan aurreikusitako Finantza Erakundeekiko Lankidetza Hitzarmenean ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

***10. artikulua.***– Laguntzen zenbatekoak.

1.– Diru-laguntza jaso dezaketen finantza-eragiketen interes-tasetako hobari bat emango du Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, honako zenbateko hauekin:

– Orokorrean, interes-tasa nominalaren puntu 1.

– Enpresa Txikien kasuan, puntu 1 gehiago, agindu honen 4. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

– Diru-laguntzako 0,50 puntu gehiago Finantza Erakundeekin sinatutako Lankidetza Hitzarmenean jasotako Elkarren Bermerako Sozietateek abalatutako eragiketetarako.

2.– Nolanahi ere, interes-tasaren hobariak ezin izango du eragiketarako baimendu edo formalizatu den interes-tasa nominala baino handiagoa izan. Interes-tasa aldakorra duten eragiketen interes-tasa nominala zehazteko, laguntza-deialdiaren argitalpen-dataren aurreko azken 6 hilabeteetako urteko Euriborraren batez bestekoa hartuko da erreferentziazko baliotzat.

***11. artikulua.***– Diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa.

Onuradun berari emandako laguntzak ezin izango dira 200.000 eurotik gorakoak izan, hiru urteko denbora-tartean, Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 EE Erregelamenduan (2006ko abenduaren 28ko EBAO, L 379/5) edota Europar Batasunaren esparruan gai horren gainean emandako bestelako xedapenetan ezarritako «minimis» arauak errespetatuz.

***12. artikulua.***– Aldi berean beste diru-laguntza batzuk jasotzeko aukera.

Beste herri-administrazioek emandako diru-laguntzak, agindu honetan jasotako xede berak badituzte, laguntza hauekin bateragarriak izango dira, betiere aurreko artikuluan ezarritako mugak gainditzen ez

***Artículo 9.***– Préstamos subvencionables.

Características de los préstamos:

a) La cuantía mínima de préstamo a subvencionar será de 30.000 euros.

b) Plazo: mínimo 5 años, incluyendo el período de carencia inicial. A efectos del cálculo de la subvención actualizada, el plazo máximo a utilizar será de 7 años.

c) Vencimientos: como mínimo de carácter mensual.

d) Fecha de formalización: dentro del año en el que se formula la solicitud.

Para el resto de condiciones se estará a lo establecido en el Convenio de Colaboración con las Entidades Financieras previsto en el artículo 8 de la presente Orden.

***Artículo 10.***– Cuantías de Ayudas.

1.– El Departamento de Industria, Comercio y Turismo concederá una bonificación en los tipos de interés de las operaciones financieras subvencionables en las siguientes cuantías:

– 1 punto del tipo de interés nominal con carácter general.

– 1 punto adicional cuando se trate de pequeñas empresas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 4 de esta Orden.

– 0,50 puntos de subvención adicional para aquellas operaciones avaladas por una Sociedad de Garantía Recíproca incluidas en el Convenio de Colaboración que se suscriba con las Entidades Financieras.

2.– En cualquier caso la bonificación del tipo de interés no podrá ser superior al tipo de interés nominal al que se ha autorizado o formalizado la operación. Para la determinación del tipo de interés nominal de las operaciones con tipo de interés variable, se tomará como valor de referencia la media del Euribor anual de los 6 últimos meses previos a la fecha de publicación de la convocatoria de las ayudas.

***Artículo 11.***– Importe máximo de las ayudas.

Las ayudas concedidas al mismo beneficiario no podrán ser superiores a 200.000 euros, durante un periodo de tres años, respetando así las reglas de «mínimis» establecidas en el Reglamento CE n.º 1998/2006 de la Comisión, de 15 de diciembre de 2006, (DOUE L 379/5, 28 de diciembre de 2006) u otras disposiciones emanadas al efecto en el marco de la Unión Europea.

***Artículo 12.***– Posibilidad de concurrencia con otras subvenciones.

Las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas que tengan el mismo objeto que las recogidas en la presente Orden serán compatibles en cuanto no superen en su conjunto el límite establecidos en el

badituzte guztira, eta kontuan hartuta laguntza horiek Industria Garatzeko Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaizkiola. Muga hori gainditzuz gero, agindu honi jarraiki emandako laguntzaren zenbatekoa gutxitu egingo da, gehiegizkoari dagokion zenbatekoa adina.

***13. artikulua.***– Deialdia.

1.– Agindu honetan araututako laguntzak (finantza-egiturara egokitzeko proiektuetarako laguntzak) urtean behin egingo den deialdiaren bidez iragarriko dira eta publizitate-, lehiatze- eta objektibotasun-printzipioei jarraituz emango dira.

2.– Teknologiako eta Industria Garapeneko sailburuaren ebazpenaren bitartez egingo da deialdia, eta honako hauek zehaztuko dira bertan: ekitaldi horretan emango diren laguntzen gehienezko zenbatekoa, eskabideak aurkezteko epea eta tokiak, agindu honen 8. artikuluan adierazitako lankidetza-hitzarmena sinatzen duten finantza-erakundeen zerrenda, eta laguntza eskatzeko formularioak.

***14. artikulua.***– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Agindu honi jarraiki, agindu honetan aurreikusitako laguntzak jaso ahal izateko baldintzak betetzen dituzten enpresek, bestalde, Industria Garatzeko Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak eta bestelako dokumentazio gehigarria, eta Zuzendaritza horretan, Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko edozein Lurralde Bulegotan, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako sailetan aurkeztu beharko dituzte eskabidea eta dokumentazio horiek. Horretaz gain, agindu honen 8. artikuluan adierazitako lankidetza-hitzarmena sinatzen duten finantza-erakundeetan ere aurkeztu ahal izango dira.

2.– Erakunde eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinatu beharko du eskabidea, eta enpresak gauzatu beharreko aurreikusitako jardun guztietarako bakarra izango da.

3.– Enpresa eskatzaileak, eskabide-orria betetzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Enpresari eta haren jarduerari buruzko informazio orokorra, eta gauzatu beharreko finantza-berregituraketaren deskribapena.

b) Enpresa eskatzailearen eraketa-eskrituraren fotokopia, eta hala badagokio, haren aldaketena, partaidetutako sozietateen eraketa-eskrituren fotokopiaz gain. Eta enpresa eskatzailearen eta partaidetutako sozietateen Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

c) Pertsona eskatzailearen ordezkaritza-ahalmenaren fotokopia.

d) Erakunde onuradunek zerga-betebeharrak eguneratuak izan beharko dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren konturako diru-laguntzen onuradunen zerga-betebeharrak betetzea egiaztatzeari

artículo anterior, debiéndose notificar dichas ayudas a la Dirección de Desarrollo Industrial. En caso de superarse dicho límite, la ayuda concedida en virtud de esta Orden se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

***Artículo 13.***– Convocatoria.

1.– Las ayudas a los proyectos de adecuación de la estructura financiera regulados por esta Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

2.– La convocatoria se realizará por Resolución del Viceconsejero de Tecnología y Desarrollo Industrial y especificará el importe máximo de ayudas a conceder durante ese ejercicio, el plazo para la presentación de solicitudes y los lugares para su presentación, la relación de las Entidades Financieras que suscriban el Convenio de Colaboración al que hace referencia el artículo 8 de la presente Orden, así como los formularios para la solicitud de la ayuda.

***Artículo 14.***– Solicitudes y documentación.

1.– Quienes de conformidad con lo establecido en esta Orden reúnan las condiciones para poder acceder a las ayudas previstas en la misma deberán dirigir la solicitud y demás documentación complementaria a la Dirección de Desarrollo Industrial y presentarla en la referida Dirección, en cualquiera de las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, o en los previstos en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. También podrán ser presentadas en las Entidades Financieras firmantes del Convenio de Colaboración al que hace referencia el artículo 8 de la presente Orden.

2.– La solicitud será firmada por la persona que posea capacidad legal para representar a la entidad solicitante y será única para el conjunto de actuaciones previstas realizar por la empresa.

3.– La empresa solicitante, además de cumplimentar la instancia de solicitud, deberá presentar la siguiente documentación:

a) Información general de la empresa y su actividad, así como una descripción de la reestructuración financiera a realizar.

b) Fotocopia de la escritura de constitución de la empresa solicitante y, en su caso, de sus modificaciones, así como de las sociedades participadas. Y fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal, tanto de la empresa solicitante como de las sociedades participadas.

c) Fotocopia del poder de representación de la persona solicitante.

d) Las Entidades Beneficiarias tendrán que estar al corriente de sus obligaciones tributarias. Cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas,

buruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduan ezarritako kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak, betiere eskatzailearen esanbidezko baimena badu, laguntzen eta diru-laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak bete dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria eskatuko die zuzenean zerga-alorreko organo eskudunei. Espedientean baimen hori agertzen ez bada, berriz, eskatzaileek ekarri beharko dute adierazitako ziurtagiri hori.

e) Aurreko ekitaldiko Ikuskatutako Kontuen Kopia, edo halakorik izan ezean, Sozietate Zergaren edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azkeneko bi aitorpenak, kasuaren arabera, horiek formulatzeko/likidatzeko ezarritako epeak kontuan hartuta.

f) Eskabidea egin aurreko ekitaldiari dagokion abenduko TC2 inprimakiaren kopia. Kooperatiben edo ondasun-erkidegoen kasuan, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean edo Autonomoen Erregimen Berezian ordaindu izana frogatzen duen ziurtagiria.

g) Hirugarrenen Altari buruzko dokumentua, eskatzaileak eta dagokion Finantza Erakundeak behar bezala beteta.

